EROSKIK ELURRA ERORARAZI DU BILBON, «BENETAKO» GABONAK ONGI ETORRI ESATEKO

- **Lehen Elurte Handiak 150 lagun inguru bildu ditu Bilbon, gastronomia, musika, opariak eta elkartasuna uztartu dituen esperientzia batean, data hauen etorrera ospatzeko.**

- **EROSKIk ekitaldi hau aukeratu du «Gabon zoriontsuak opa dizkizugu (benetan)» kanpaina aurkezteko; kanpainak ospatzeko modu erreal eta hurbila aldarrikatzen du, dena perfektua atera beharrik gabea.**

- **Ane Igartiburuk eta Aratz Lakuntzak gidatuta, kanpainako spotetako baten estreinaldia ere egin da, lehen aldiz erakutsita.**

Elorrio, 2026ko azaroaren 12.- Bilbok Gabonen aurrerapen oso berezia bizi izan du gaur arratsaldean. EROSKIk elurra eragin du hiriaren erdi-erdian, Lehen Elurte Handiarekin: YIMBY Bilbaon egin den esperientzia horrek 150 lagun inguru bildu ditu, gastronomia, musika, argiztapena, efektu bisualak eta sorpresa ugari uztartu dituen proposamen baten inguruan. Ane Igartiburuk eta Aratz Lakuntzak gidatutako ekitaldiak batez ere EROSKIko bezeroak bildu ditu, baita edukien sortzaileak eta SOMOSeko enbaxadoreak ere.

Nahiarte erakundeak, desgaitasun psikikoa eta/edo intelektuala duten pertsonen sormen-talentua lantzen duenak, elkartasunez blaitu du ekitaldi hau, eta bertaratu guztiek kolektiboak diseinatutako poltsa bat eraman dute etxera.

Benetako Gabonak, ez perfektuak

Lehen Elurte Handia EROSKIk 2026ko Gabonetako kanpaina aurkezteko aukeratutako agertokia ere izan da, «Gabon zoriontsuak opa dizkizugu (benetan)» leloarekin, eta kanpaina horren barruan egongo diren spotetako bat lehen aldiz erakusteko. Proposamen honekin, EROSKIk Gabon erreal eta hurbila aldarrikatu nahi du, apaindurarik gabea, non ez den beharrezkoa dena ezin hobeto ateratzea benetan garrantzitsuaz gozatzeko. Maite ditugun pertsonekin elkartzea, uneak partekatzea, mahai baten inguruan gozatzea eta data hauen antolaketa errazten duten irtenbideak izatea dira kooperatibaren mezua egituratzen duten balioetako batzuk.

EROSKI - Komunikazio Korporatiboko arduraduna
Patricia Martín Sanchidrián
Tel: 946 211 214 comunicacion@eroski.es

INCÓGNITO - Prentsa bulegoa
Silvia Peralta
Tel: 917 379 950

«Lehen Elurte Handiarekin data hauetako ilusioa piztu nahi genuen. Eta begirada oso errealetik egin nahi genuen, gure kanpainari inspirazioa ematen dion berberetik. Izan ere, ez da beharrezkoa dena perfektua ateratzea berezia izan dadin. Azken finean, gogoratzen duguna topaketak dira, partekatzen duguna eta egun hauek merezi izatea lortzen duten xehetasun txiki horiek», adierazi du Ainhoa Oyarbidek, EROSKIko marka eta komunikazio zuzendariak.

Gastronomia, musika eta elkartasuna

Ekitaldiak osagai gastronomiko garrantzitsua izan du, Gabonetako produktuekin, eta musika DJ Flacak jarri du, Infoodencers dokumentalaren protagonistak; EROSKIk bultzatutako dokumental horrek benetan nork eragiten duen gure elikatzeko moduan aztertzen du, eta duela gutxi aurkeztu zen.

EROSKIri buruz

EROSKI banaketa talde liderretako bat da Espainia iparraldeko merkatuan —Galiziatik Balearretara—, %12,32ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian, eta buruzagikide (kolider) da Balearretan. 2025aren amaieran, 1.508 saltoki zituen bere sare komertzial omnikanalean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita optikak, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren beste negozio batzuk ere. Horretaz gainera, 6 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 28.200 lagunek baino gehiagok osatzen dute langile taldea; horietatik 8.300 baino gehiago, berriz, bazkide eta jabe dira.

EROSKI - Komunikazio Korporatiboko arduraduna
Patricia Martín Sanchidrián
Tel: 946 211 214 comunicacion@eroski.es

INCÓGNITO - Prentsa bulegoa
Silvia Peralta
Tel: 917 379 950